



HONDARRIBIKO UDALA

HONDARRIBIKO UDAL ARTXIBO ZERBITZUA



2018

MEMORIA

2019, uztaila
Begoña Andrés Arratibel



HONDARRIBIKO UDALA

EDUKIAREN AURKIBIDEA

Eraikuntza eta hirigintza proiektuen Planoen digitalizazioa.....	03
Hirigintza espedienteak alderatzeko lanak.....	04
Artxibo Historikoko Aktetako akordioak husteko lanak (1750etik 2015era).....	05
Digitalizatutako serieak egiaztatze lanak: 1531tik 2015era arteko Aktak eta Dekretuak.....	06
Interes historikoko piezak eskuratzea.....	07
Dokumentu historikoak zaharberritzea.....	08
Foru Aldundiaren dirulaguntza zaharberritze lanetarako.....	09
Kudeaketa Dokumentalaren Sistema ezartzea.....	09
Artxibo orokorreko dokumentuen garbiketa, balorazio eta hautaketa lanak.....	10
Transferentziak.....	11
Ikastaroak, mintegiak edo jardunaldiak.....	12
Ondare dokumentalaren osasun onaren mantentze lanak eta prebentzioa.....	12
Kontsultak.....	14
Aurrekontua.....	17

◆◆◆



HONDARRIBIKO UDALA

ERAIKUNTZA ETA HIRIGINTZA PROIEKTUEN PLANOEN DIGITALIZAZIOA

UAZk proiektu hau egiteko interes handia du, artxiboko erabiltzaile guztiek, hiritarrek, administrazioak eta historiagileek etengabe kontsultatzen duten proiektua denez.

Kontuan izan behar dugu dokumentu mota hau -hirigintza proiektuen planoak- jatorrizko dokumentuak eta etengabe zaindu beharreko dokumentuak direla, Udaleko Artxibo historikoko Ondare dokumentala osatuko dutela, eta baldintza fisiko onenetan zaindu behar direla Hondarribiko Artxibo historikoan. Haien kontsulta eta erreprodukzio masiboak hondatze handiak eragiten ditu (hausturak, tolesturak, tinta eta tonu galerak, etab.). Artxibo digital hau izateak ahalbidetzen du, jatorrizkoak aldaketarik gabe kontserbatzeaz gain, kontsultak azkar eta modu eraginkorrean egitea

Gure Artxibo Historikoan eta Artxibo Administratibo Orokorrean dauden Obra eta Hirigintza proiektuen dokumentazio grafikoa digitalizatzeko proiektua 2006tik egiten ari da ia etengabe. Proiektu hau fase berezituetan egiteko arrazoia da, hain zuzen ere, dokumentu mota honen kronologiaren arabera beharrezkoa duen tratamendua berezia dela:

Horrela, XIX. mendetik XX. mendearen erdialdera arteko planoak -funts historikoa- digitalizatzeko prozesuaren funtsa izan da Datu Base bat egitea. Base horren erregistroak sartzen dira tipologia dokumental honetarako fitxa katalogafiko batean, eta horien osagarri proiektu bakoitzerako planoen miniaturazko irudiak. Erregistro bakoitzaren oinarrizko eremuak hauek dira: Sustatzailea, proiektuko plano bakoitzaren deskripzioa, ekartzen duen informazio idatzia, egilea/egileak, data kronikoa eta topikoa, neurriak, eskala, euskarriaren informazioa, kontserbazio egoera, espedientearen datuak...

70. hamarkadaren bigarren erdialdetik 90. hamarkadako erdialdea arte proiektuek desberdinak diren berezitasun batzuk dituzte, kontuan hartu beharrekoak digitalizazioaren tratamendua egiterakoan, batez ere planoen neurria handiagoa izaten hasten delako eta laurogeigarren hamarkadatik aurrera proiektuetako planoen kopurua askoz handiagoa delako.



Une hauetan, aldiz, digitalizazio lanak programatzerakoan eta zenbatzerakoan irizten dugu erabakigarria dela fitxa katalogafikoak eta miniaturak egin gabe digitalizatu ahal diren planoen kopuru handiena egitea, zeren eta Datu Basearen erregistro artxibistikoek horien oinarrizko datuak jasotzen dituzte



HONDARRIBIKO UDALA

Lan hauek fase berezituetan egiteko beste arrazoi bat da emaitzak hobeto kontrolatzea, zeren eta digitalizazio masibo baten aurrean oso zaila da gertatu ahal diren arazoak, akatsak, hutsegiteak etab. gainbegiratzea.

Horrela, 2018 urte honetan UAZk iritzi du hirigintza proiektuen planoak digitalizatzen bukatzeko unea zela, batez ere XXI. mendeko lehenengo urteetakoak -mende honen lehenengo hamarkadatik aurrera sustatzaileei proiektuak euskarri digitalean ere aurkeztea exijitu zaie-.





HONDARRIBIKO UDALA

HIRIGINTZA PROIEKTUETAKO ESPEDIENTEAK ALDERATZEKO LANAK

Artxibo Zerbitzuaren lehentasuna Hirigintza planoen DIGITALIZAZIO proiektua osatzea da.

Horretarako nahitaezkoa da orain arte egindako lana alderatzea.

Lan hori izan da obren hirigintza lizentzien espedienteen “HIRIGINTZA” Datu Basearen 4.636 erregistroak alderatzea. Digitalizatutakoa egiaztatzea eta bere garaian digitalizazio prozesuan sartu ez ziren planoak -udal bulegoetan mailegatuta zeudelako edo hutsegiteagatik- lokalizatzea, horrela digitalizatu ahal izateko eta serie digitala osatzeko.






1750 eta 1902 urteen artean -biak barne- HONDARRIBIKO UDALEKO BILKURETAKO AKTETAKO AKORDIOAK HUSTEA eta beharrezko datu basean iraultzea. Guztira 9.037 bilkura

Lan horrek dakar gure Artxibora gure historia aztertzeko informazio iturri onena ematea; hau da, urte horietan Udaleko bilkuretan landutako gaiak ezagutzea datu basean bilaketa egite hutsarekin eta aldi berean irudi digitala eskuratzea. Horrek bidea ematen du informazioa modu azkar eta eraginkorrean berreskuratzeko-.

UAZk irizten du beharrezkoa dela artxibistikan aditua den enpresa bat kontratatzea lan horiek egiteko jarraian doazen arrazoiengatik:

. Udaleko irakurri beharrekoak diren 9.037 eko aktetako akordioak deskribatu behar dira, lan bolumen handia izanik. Ezinezkoa da 9.037 akta edo bilkura horietako akordioen zenbaketa zuzen bat egitea bilkura bakoitzak gai zerrenda kopuru desberdina duenez. Bilkura bakoitzeko 7 akordioko zenbatespena eginez guztira aztertu beharreko 63.259 akordio dira. Eta bilkura askotan gehiago dira. Horrek eskatzen du lan horretan denbora asko ematea

. Edukien irakurketak eta interpretazioak eskatzen du paleografia eta historia ezagutza handiak izatea: idazkera, batez ere XVIII. mendeko eta XIX. mendeko lehenengo erdialdeko dokumentuetan, zaila da irakurtzen bai letra motagatik bai erabiltzen diren laburdurengatik, eta horri gehitu behar zaizkio dokumentu horien kontserbazio egoerak ekartzen dituen zailtasunak (hausturak, zikinkeria...)





HONDARRIBIKO UDALA

DIGITALIZATUTAKO DOKUMENTU SERIEAK EGIAZTATZEKO LANAK: AKTA LIBURUAK ETA DEKRETUAK 1531tik 2015a arte

Udal artxiboak irizten du beharrezkoa dela bere artxibo digitala egiaztatzea eta gero eguneratzea zenbait arrazoiengatik:

- . Artxiboa hasi zen digitalizazio lanekin 2000 urtean garai hartako ezagutzeekin eta baliabide teknologikoekin.
- . Hemezortzi urte dira irudi horiek digitalizatzen eta kontsultatzen direla.
- . Urte horietan guztietan akatsak eta galerak izan dira formatu berrietara, datu base berrietara, programetara eta abarrera egindako migrazioetan.

Horrela, zuzendu beharreko anomalia, akats eta hutsegiteen zerrenda dugu, eta aldi berean digitalizatu gabe dagoenaren balantzea egiten da.



Acuerdos



Num. Acta 24874 Num. Acuerdo Acuerdo 08/05/1781 Folios 97r-100r Año 1781 Imagen 24874.pdf

Título

Contenido

Se juntaron los alcaldes ordinarios Miguel Antonio de Arizmendi y Francisco Xavier de Iriarte, jurado mayor Dionisio de Aramburu, síndico Francisco Xavier Sanzetenea, regidores Irivierri e Iparagurme, y se acordó lo siguiente:

Resolución

Onomásticos

IRIARTE, Francisco Xavier de (alcalde)
ARIZMENDI, Miguel Antonio de (alcalde)
ARANBURU, Dionisio de (jurado)
SANZETENEA, Francisco Xavier de (síndico)
IRIBERRI, Pedro Ignacio de (regidor)
IPARRAGIRRE, Ambrosio de (regidor)


Topónimos

Temas

Subtemas

Observaciones

Correcciones

 28168 de 29302

◆◆◆



HONDARRIBIKO UDALA

INTERES HISTORIKOKO PIEZAK ESKURATZEA

Kontuan izanda Udal Artxibo Zerbitzuaren berezko lanak -horien artean dago Hondarribiko Historiari buruzko azterketak bultzatzeko eta sustatzeko kultura sustatzea- eta Pedro Barroso Barés jaun Historian doktorea denaren “*Violencia y represión en Hondarribia. Tipologías documentales y guía de fuentes para el estudio de la violencia de Guerra y posguerra*” azterketa historikoa eskuratzeko proposamena aurkezturik, Artxibo Zerbitzu honek iritzi zuen interesekoa zela, bidea ematen digunez prozesu errepresiboekin lotutako dokumentu iturriak ezagutzeko, Hondarribiari buruzko etorkizuneko azterketetarako dauden eta eskuratzen zailak diren zenbait artxibotan sakabanatuta dauden dokumentu batzuk aurkituak eta identifikatuak dituenez.






HONDARRIBIKO UDALA

DOKUMENTU HISTORIKOAK ZAHARBERRITZEA

“Akta Liburua” da baliabide nagusia, tresna garrantzitsuen Udalaren eskumenak betetzerakoan: Akta liburuetan udal jardura guztia jasotzen da, Udalak sortutako dokumentu garrantzitsua denez, bai hiritarrek eta bai Udalak gehien kontsultatzen duten bitartekoa da. Horren ondorioz, erabat beharrezkoa da edozein ikerketa historiko egiterakoan. Horrek kontserbazio arazoak sortzen ditu etengabe kontsultatzerakoan gertatzen den hondatze arriskuagatik.

Aurten Artxibo Zerbitzuak proposatzen du MARTA GATELLi jarraian doazen dokumentu piezak zaharberritzea eskatzea, baloratu ondoren esku-hartze irizpideak eta zaharberritze tratamendua:

1832tik 1837a arteko Akta Liburua
1808tik 1820a arteko Akta Liburua
1803tik 1807a arteko Akta Kiburua
1802ko Akta Liburua





HONDARRIBIKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN DIRULAGUNTZA DOKUMENTU HISTORIKOAK ZAHARBERRITZEKO

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren bidez kudeatzen du Euskal Kultur Ondarearen legean (1990) ezarritako eskumenak betez garatzen duen dokumentuak zaharberritzeko dirulaguntzak emateko program.

Oraingoan ere Udal Artxibo Zerbitzuak beharrezko dirulaguntza espedientea tramitatu zuen Dokumentu Ondarea Zaharberritzeko, 2018ko martxoko GAOan argitaratua.

Gipuzkoan dokumentu ondarea zaharberritzeko eta sendotzeko dirulaguntzak emateko ebazpenean - 2018ko irailaren 14ko 178 GAOan argitaratutakoan- Hondarribiko Udalari 3.510,00 euroko zenbatekoa eman zioten.

◆◆◆



HONDARRIBIKO UDALA

HONDARRIBIKO UDALEKO BULEGOETAKO ARTXIBOETAN ETA ARTXIBO OROKORREAN KUDEAKETA DOKUMENTALAREN SISTEMA EZARTZEA.

Udal Artxiboak bere esku-hartzearekin jarraitzen du Kudeaketa Dokumentalaren Sistema ezartzen, Udalaren ekoizpen dokumentalaren esku-hartze irizpideak ezarriz, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Aurten oinarritzko bi eremutan hasi da esku-hartzen –bulegoetako Artxiboan eta Artxibo Orokorrean- irizpide estandarizatuak, homogeneoak aplikatuz:

- **Ekoizpen dokumentalaren sailkapena:** sailkapen taula bakarra → Kodifikazioa → Zalantzarik gabeko identifikazioa.
- **Adostutako deskripzioa** → gaia azaltzea, labur, argi eta zalantzarik gabe.
- **Ebaluazio dokumentalaren taulak aplikatzea** → DOBAUBAren arau orokorren arabera, dokumentazioa kontserbatzeko egutegiak egitea: transferentzia epeak, kontserbatzea eta ezabatzea edo garbitzea eta ezabatze prozesuaren kontrola. Dokumentazioaren bizitza zikloan dokumentazioa eskuratzeari buruzko arauak eta irizpideak aplikatzea.





HONDARRIBIKO UDALA

ARTXIBO OROKORREKO DOKUMENTUAK GARBITU, BALORATU ETA HAUTATZEKO LANAK

Artxibo zerbitzuak Hondarribiko udaleko dokumentu ondarea osatzen duten dokumentuak ezabatzeko proposamenetan jarraitu beharreko irizpideak ditu ezarriak:

Ezabatze proposamena, indarrean dagoen araudian, eta zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentuak eskuratzeari, ebaluatzeari eta ezabatzeari buruzko arauan -232/2000 dekretuan, azaroaren 21ekoan, Artxibo Zerbitzuen Araudia eta Euskal Herriko Ondare Dokumentala arautzeari buruzkoan-ezarritakoari jarraiki, dokumentuak ezabatzea ahalbidetzen duen oinarritzko prozedura da.

Ezabatze proposamenek betetzen dute DOBAUBAk xedatutakoa, adieraziz DOBAUBAk onartutako beharrezko Balorazio Taularen data eta EHAA-n argitaratu den data.

Dokumentazioaren hautaketa eta ezabaketa egiten da artxibo maila bakoitzean, Kontserbazio Egutegian dokumentu serie bakoitzerako zehaztu diren egote eta kontserbazio epeetan. Kasu bakarrean ere ezin izango da balio administratiboa eta juridikoa duen dokumentazioa ezabatu.

Ezabatze prozesua dokumentazioaren segurtasuna garantizatzen duen enpresa homologatu bati (*Eusko Jaurlaritzako Kudeatzaile Baimendua*) esleitu zitzaion, horrela babestuta geratu zen kanpotik egiten diren tarte sartzetatik

Aurten ezabatu dira 897 dokumentu kutxa, hau da 107,64 metro lineal eta 2.691 kilo.





HONDARRIBIKO UDALA

TRANSFERENTZIAK

2018 urte honetan jarraitu da, salbuespen moduan, Bulegoetako artxiboetatik transferentzia masiboak egite, zenbait arrazoiengatik:

Iaz egiten hasi zen Kudeaketa Dokumentalaren Sistemaren beharrengatik: esku-hartzen ari da iaz -2017ko ekoizpena barne- modu masiboan transferitu ziren dokumentuetan, horietan kudeaketa lana eta zainketa lana ere eginez, zeren eta Udaletxeko 3. eta 4. solairuetako birgaitze obrak bulegoak berkokatzeko behar berriak sortzen ari dira, Artxiboan zuzenean eraginez, dituzten espazio arazoengatik





HONDARRIBIKO UDALA

IKASTAROETAN, JARDUNALDIETAN, BILTZARRETAN... PARTE HARTZEA

“I Congreso nacional de archivo y documento electrónico – cnADe”

Leganés hiriko udalak eta Leganés hiriko berrikuntza klubak antolatua, 2018ko urtarrilaren 24an eta 25ean.

“Euskadiko Artxiboen Elkarlana 2018: Gardentasuna, dokumentuen atzitzea eta datuen babesa”

Arxhivo Histórico de Euskadi – Euskadiko Artxibo Historikoak 2018ko irailaren 28an Bilbon antolatua, Informazio publikoa Atzitzeko Eskubidearen Nazioarteko Egunean egina.

“Deskribapen artxibistikoari buruzko jardunaldia: NEDA-MC estandarra” (artxiboko deskribapenerako eredu kontzeptuala)

Arabako Probintzia-Artxibo Historikoa Archivo Histórico Provincial de Álava erakundeak antolatua Vitoria-Gasteiz hirian, 2018ko maiatzaren 11n





HONDARRIBIKO UDALA

ONDARE DOKUMENTALAREN OSASUN ONAREN MANTENTZE LANAK ETA PREBENTZIOA

Udal Artxibo Zerbitzuak urtero enpresa aditu bati biltegietan Artxiboaren ingurumen egoeraren eta kontserbazio egoeraren kontrola egitea enkargatzen dio gure Ondare Dokumentalaren kontserbazio egokia izateko.

2018 urtean egindako ikuskapenen eta tratamenduen laburpena, artxiboa osatzen duten aretoen ingurumen egoera mantentzeko eta Kultur Etxeko eta Pampinoteko Artxiboetako biltegiei eragin ahal dieten eragile biotikoak monotorizatzeko:

Ikuskapenak eta tratamenduak apirilean, uztailan eta azaroan egin ziren.

Argi-Humichem enpresako bi teknikarik artxiboetan zeuden lizunak ikuskatu eta garbitu zituzten.

Ikusketan ikusi zen partikular batek emandako agiri batean¹ pipi arruntaren jardueraren aztarna berriak zeudela. Erabaki zen dokumentua shock termikoko kamera batean tratatzea: intsektu xilofago guztiak haien fase guztietan –arrautza, larba, eta intsektu helduak- ezabatzen dituen tenperatura eta hezetasun ziklo kontrolatu bat egitea.

¹partikular batek emandako dokumentua






HONDARRIBIKO UDALA

Artxiboen ikuskapen orokorra eta instalatutako intsektuen tranpen eta lanparetako UVA bonbillen mantentze lana.

Ikusketa uva argiarekin



Beharrezko talkako ingurumen tratamendua egin zen.

Irizten da aretoetan hilabete horietan sartutako agente abiotikoak egokiak direla (HA%32-40 eta 23-25°C eta 20-21°C HR%30-53). Ez dira aipagarriak hilabete horien neurketetako aldaerak, eta horrek erakusten du barrutien isolamendu maila ona dela kanpoko ingurumen gorabeheren aldean.

Esan behar da ez dagoela artxiboentzako intsektu kaltegarriak, adibidez Tineola (sits gorria) eta Anobidoak (pipi arrunta).

Oro har irizten da aretoen gaur egungo ingurumen egoera ona dela. Joera orain dela urte batzuetako bera da, harrapaketa kopururik handiena Kultur Etxean izan da (han aretoa baldintzatuago dago).





HONDARRIBIKO UDALA

KONTSULTAK ETA MAILEGUAK


Kontabilizatu dira 2018 urtean egindako **1266 KONTSULTA GUZTIRA**.

Kontabilizatu dira 2018 urtean udal pertsonalaren dokumentuen **127 MAILEGU GUZTIRA**.

KONTSULTAK zehaturik:


→ ERABILTZAILE motaren arabera:

■ HERRITARRAK ■ UDAL LANGILEAK



→ Kontsultatutako DOKUMENTAZIO motaren arabera:

- AGIRI HISTORIKOAK
- ADMINISTRAZIO agiriak





HONDARRIBIKO UDALA


→ Kontsultaren GAI motaren arabera:

◆ IKERKETA HISTORIKOA -

◆ HIRIGINTZAKO GAI ETA ESPEDIENTEAK -

◆ ADMINISTRAZIO OROKORRARI BURUZKO GAI ETA ESPEDIENTEAK -

◆ ANTZINAKO POSTALAK ETA ARGAZKIAK -



→ Kontsulta egiteko bide motaren arabera

⇒ Bertara joanda

⇒ Internet/mail bidezkoa

⇒ Telefono bidezkoa


⇒ Eskutitza (0)





HONDARRIBIKO UDALA

→ Kontsulten garapena urteen arabera:



◆◆◆



HONDARRIBIKO UDALA

UDAL ARTXIBOAREN AURREKONTUA


Artxibo Zerbitzuak izan duen aurrekontuaren garapena hau izan da:

⇒ 1996.....	5.345.000 Pzta.
⇒ 1997.....	6.789.916 Pzta.
⇒ 1998.....	9.060.269 Pzta.
⇒ 1999.....	20.137.017 Pzta.
⇒ 2000.....	13.916.073 Pzta.
⇒ 2001.....	15.157.473 Pzta.
⇒ 2002.....	73.404,00 €
⇒ 2003.....	61.853,00€
⇒ 2004.....	89.153,00€
⇒ 2005.....	54.106,00€
⇒ 2006.....	57.000,00€
⇒ 2007.....	53.300,00€
⇒ 2008.....	101.940,00€
⇒ 2009.....	164.698,29€
⇒ 2010.....	119.284,23€
⇒ 2011.....	93.867,10€
⇒ 2012.....	94.074,00€
⇒ 2013.....	115.990,00€
⇒ 2014.....	129.999,69€
⇒ 2015.....	82.439,07€
⇒ 2016: (ez dago sartuta pertsonal, Gizarte Segurantzaren eta abarri buruzko gastuen aurrekontuaren 1 kspitulua)	
⇒ Artxibo Administratiboa.....	90.300€
⇒ Artxibo Historikoa.....	62.000€
⇒ 2017: (ez dago sartuta pertsonal, Gizarte Segurantzaren eta abarri buruzko gastuen aurrekontuaren 1 kapitulua)	
⇒ Artxibo Administratiboa.....	90.300€
⇒ Artxibo Historikoa.....	110.075€
⇒ 2018: (ez dago sartuta pertsonal, Gizarte Segurantzaren eta abarri buruzko gastuen aurrekontuaren 1 kapitulua)	
⇒ Artxibo	
Administratiboa.....	170.075,00€
⇒ Artxibo	
Historikoa.....	159.600,00€



HONDARRIBIKO UDALA

AURREKONTUAREN GARAPENA



◆◆◆